



BARREN

TOKIKOM

# Atzera Erdi Arora





# Olaia Martinez edergintza zentrua



**E**stetika ikasketak bukatu eta edergintza munduan hasi zen lanean Olaia Martinez (Elgoibar, 1983) duela hamabi urte. Urteak eman ditu beste estetizista edo ile-apaintzaileekin lokala eta negozioa partekatzen, baina orain, bere zentro propioa dauka, Trenbide kaleko 21. zenbakian.

## LOKAL BERRIAK ASKOTARIKO AUKERAK ESKAINTZEN DIZKIO:

- ❑ **Kalitatezko azpiegitura:** Lokal berriak espazio zabal eta goxoak ditu. Tratamendu desberdinak egiteko lau kabina, solariuma eta manikura, makillajea eta kolorea lantzeko beste espazio zabal bat.
- ❑ **Espazio intimoa:** Erlaxatzeko tratamenduak egiteko gunea da (bildurak, esfoliazioa, masaje berezi eta gustagarriak kandela edo pindak erabiliz, usain-terapiak...).
- ❑ **Espazio moderno eta eroso** da, eta elbarrientzako egokitutakoa.
- ❑ **Ezkontzetan** ethez-etxeke makillaje eta manikura zerbitzua eskaintzen dugu.

## LOKAL BERRIAN, TRATAMENDU BERRIAK:

- ❑ **Accurett:** Azaleko pigmentazio orbanak betirako kentzeko balio du. Ez du minik ematen. Izozte prozesu bidez egiten da. Pigmentazio orbana dagoen zonaldea izoztu eta hiru bat sesiotan betirako kentzen da.
- ❑ **Dermatech pen:** Pertsona bakoitzaren beharren arabera moldatzen da tratamendua. Urteek azalean eragiten dituzten kalteak arintzeko tratamendua da. Kirurgia edo ebakuntzarik gabeko terapia da, eta ez du minik eragiten. Era naturalean aurpegia gaztetzen du. Aukera anitzak eskaintzen ditu eta bakoitzaren beharretara arabera moldatu daiteke.
- ❑ **Solarium berria:** Lokal berrian, solarium berria daukagu.



**OLAIA  
MARTINEZ**  
ESTETIKA ZENTROA

## 943 242 805

Txartel hau ekarriz gero,  
%10eko deskontua  
tratamendu guztietan.  
Urte bukaerara arte.

Trenbide kalea 21, behe, ezk.



# EUSKARALDIA ARIKETAREN HASIERA-EKITALDIA



Azaroak 23, ostirala  
Maalako parkean  
18:30ean

Astebete baino ez da falta Euskal Herrian

**euskararen erabilera areagotzeko** inoiz egin den ariketa jendetsuenari ekiteko.

**Azaldu Maalako parkera eta denok batera emango diogu hasiera!**

**Elgoibarren, momentuz, 1.290 lagunek eman dugu izena.**

**Animatu zu ere!**

**Azaroaren 23an itxiko da izena emateko epea.**



## IBON SERRANO LASA

Ingeniaria

## “Ostrukak al gara ostraka artean?”

Lehenengo ekarpen bezala eta “arrazkastaz” bete nadin, gatozen inori interesatzen ez zaion gaiaz: Iruña Veleia!

### - Ostruken delitu hura?

Ostrakak, ez ostrukak. Batik bat zeramika eta hezur zatietan tresna zorrotzez eginiko grabatu, marrazki zein idatziak. Gune arkeologiko gehienetan aurki daitezke; baina III. mende inguruko 400 hauek, 10.000 biztanle izatera heldu zen Arabako Iruña Veleia hiri erromatarraren aztarnategikoak dira.

Eliseo Gil ikerlariak 2006an eman zituen argitara. Arabako Foru Aldundiaren enkarguz aztarnategiaren ustiaketa zeraman Lurmen enpresako arduraduna zen.

Egun gutxitara Lurmen berak faltsutu ote zituen susmoa zabaldu zuten zenbait akademikok.

Hainbat zalaparta mediatikoren ondoren, Arabako Aldundiak ustiaketa lanak EHUko Arkeologia Sailaren eskutara pasa eta 2008an, Eliseo eta Lurmen salatu zituen epaitegian.

### - Zergatik gaia berriz?

10 urte korapilatsu igarota, badirudi

epe motzean abiatuko dela epaiketa. Faltsutzea deliberatzen bada, Eliseori espetxe eta isun zigor larriak egotziko dizkiote; kontuan izan barik oraino jasandako erabateko bazterketa.

### - Eta nolatan faltsuak diren “ustea”?

Zenbait grabatuk historia “ofiziala” nolabait kolokan jar dezakete: Kasu, Vatikanoko bera kezkatu duten irudi kristau apokrifoeak; baina batik bat, euskaraz agertu diren hitz eta esaldiak. Uste zabaldua baita “Achademia” hispanofiloan “Baskonizazio Berantiarra”ren “phenomena”; erran nahi baithute,



Araba ez omen zela VI. mendera arte euskaldun.

### - Eta zein froga aurkeztu dira salaketan?

Hor koxka. Ez da ganorazko froga kimiko edo analitikorik burutu, ezta ostraka berriak bilatzeko indusketarik ere. Eskakizun hauen inguruan ari da Iruña-Veleia Argitu plataforma sinadurak biltzen.

### - Orduan, zertan oinarritu dira?

Batik bat, alderdi interesatu den baztorde aholkulari baten iritzi hutsetan. Noski, bozgorailu mediatikoen oihartzunaz baliatuta.

### - Zerbait gehiago siesta aurretik?

Zure lo-aharraisiez jabetu naiz, bai. Baina egiazkoak ala faltsuak izatetik haratago, konturatzen al gara zein bazterretaraino hel daitekeen botere sistema? “Ostrukak al gara ostraka artean?”

Zurrungen aitzin, ez nuke bukatu nahi J.M. Elexpuru filologo, ikerlari eta idazlearen borroka omendu barik. Hurrengoan, berriki *Nature* aldizkariak balioztatu duen Sardinia uharterako euskarari buruzko bere ikerketa azaltzen saiatuko naiz.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Legeburuaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR  
UDALAK  
KULTURAREN  
KUNTZARENTZAT

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKOIA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ZERGEN IGOERA DELA-ETA

Urriaren 26ko Osoko Bilkuran zergak igotzea erabaki zuen Udalak. Igoera hau EAEko abuztuko KPlari lotuta dago. Igoera hori justifikatzeko KPlaren goranzko joera eduki dutela kontuan esan digute, baina Eustatet web orrian agertzen den bezala, irailiko KPl-a %2,1koa izan zen, abuztuko baina txikiagoa, hain zuzen ere. Azpimarratu nahiko genuke, bestalde, maiatzera arteko KPla abuztukoaren erdia izan zela. Beraz, zergen igoera justifikatzeko, egokitutako datuak hartzen dituzte kontuan.

Euskal ekonomia igo egingo dela saldu nahi digute, baina sailburuak berak kontrakoa esan du. Pedro Azpiazu Oga-

sun eta Ekonomia Sailburuak esan duenez, bigarren hiru hilabete (urte arteko terminoetan), ekonomiak "desazelerazio txiki" bat izan du, "aurreikusi bezala". Horrez gain, datozen bi urteetan ere nolabaiteko "moteltzea" izatea espero dela adierazi du.

Bestalde, Elgoibarko Udalak azken lau urteetan ez ditu zergak igo, baina esan beharra dago 2013an izan ezik, abuztuko KPl datuak negatiboak izan zirela urte horietan, beraz, Udalaren irizpidea kontuan hartuta, zergak jaistea tokatzen zen, eta ez izoztea.

Datu hauek ikusita Ahal Dugu Podemosetik zergen igoerarekin daukagun desadostasuna jakinaraztea nahi dugu.


Alde batetik, familien egoera ez delako aldatu eta oraindik krisian murgilduak jarraitzen dutelako, eta, bestaldek, gure ustez, KPlaren urte osoko batezbestekoa hartu beharko litzatekeelako kontuan. Grafikoan ikusten den bezala, 2017ko irailetik 2018ko ekainera KPlaren tarteak %1,4koa izan da. Irizpide hau askoz egokiagoa iruditzen zaigu, errealtatearekin gehiago lotzen delako.

**Elgoibarko Ahal Dugu-Podemos**




## Ventura Arrieta Bergaretxe

2018ko azaroaren 11n hil zen, 93 urte zituela.  
Haren aldeko meza izango da, azaroaren 18an, domekan,  
12:45ean, Aiastiako San Migel elizan.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak eta hileta elizkizunera agertu izana.



## Manolo Alvarez Fernandez

2018ko azaroaren 12an hil zen, 78 urte zituela.  
Haren aldeko meza izango da, azaroaren 25ean, domekan,  
10:30ean, Idotorbeko San Pedro elizan.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak eta hileta elizkizunera agertu izana.



I. URTEURRENA

## Dolores Dominguez Anglade

2017ko azaroaren 13an hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurrenako meza izango da, domekan, azaroaren 18an, 11:30ean  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenei alde zurretik eskerrak.



## Biktimak oroitu zituzten zapatuan Elgoibarren egindako ekitaldian



**A**rabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko beste instituzio askok bezala, Memoriaren Eguna ospatzeko ekitaldia egin zuen Elgoibarko Udalak zapatuan, Giza Eskubideen parkean. Ekitaldi "xume eta hunkigarria" izan zen, eta bukaeran, ekitaldira batutakoek lore sorta utzi zuten Gernikako Arbola-  
ren ondoan eta minutu bateko isilunea gorde zuten. Elgoibarko Udaleko korporazioko kideek eta giza eskubideen urraketen biktimek parte hartu zuten ekitaldian.

## Ekintza ugari antolatu ditu Sarek Sebas Etxaniz presoak aske behar lukeela aldarrikatzeko



Villabonako kartzelan preso dago Sebas Etxaniz elgoibartarra, bigarren graduan, baina egoera horretan daudenei dagozkien onurak aplikatu gabe. Azaroaren 27an 75 urte beteko ditu, eta Elgoibarko eta Soraluzeko Sarek hainbat ekintza antolatu dituzte, Etxanizek aske behar lukeela aldarrikatzeko. Asteazkenean, esaterako, *Black is beltza* filma aurkeztu zuen Fermin Muguruzak Herriko Antzokian, eta azaroaren 25erako, mendi martxa antolatu dute Karakatera. Kargoen plazatik abiatuko dira, 10:00etan, eta Karakateko gainean salda eta txorizoa banatuko dituzte eta talde argazkia ere egingo dute, 12:00etan. Hilaren 27an, berriz, Onintza Ostolaza, Sebas Etxanizen abokatuak, bere bezeroaren egoera legala zein den azalduko du Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta ondoren, SAREko kide batek presoaren egoera orokorrari buruz hitz egingo du. Hilaren azkenerako, berriz, azaroaren 30erako, elkarretaratzek iragarri dituzte Soraluzen eta Elgoibarren. Elgoibarkoa 19:30ean izango da.

## Bigarren eskuko azoka Mendaron, azaroaren 18an

Bigarren eskuko azoka antolatu dute Mendaron azaroaren 18rako. Ez da estreinako aldia, baina honako honek izango du berezitasunik. 11:00etan zabalduko dute azoka, eta 15:00ak bitartean produktu askotarikoak eros-  
teko aukera izango da. Era berean, Mandira Studiok haurrentzako tailerra ere jarriko du, birziklatutako materialarekin sormena lantzeko. Azokan erosketaren bat egiten dutenen artean, berriz, 10 euroko bost bale zozketatuko dituzte, herriko dendetan gastatzeko.

## Abenduaren 11n zabalduko dute Mercadona Elgoibarren

Abiada bizian doaz Mercadonako obrak eta beste jardunik ez dago kalean. Arduradunek jakinarazi dute abenduaren 11n zabalduko dutela denda, eta aurrez, azaroaren 19tik 30era, informazio bilerak egingo dituztela, egunero, 10:30ean eta 17:30ean, IMHn. Mercadonari buruzko informazioa emango dute bileran, eta joan nahi duenak izena eman behar du aurrez, telefono zenbaki honetara deituta: 690 034 100. Joaten diren guztiek Mercadonako produktu-sorta bat jasoko dute.

## Eibarko Ospitalea ezagutzeko bisitak antolatu dituzte

Debabarreneko ESiko zuzendaritzak Eibarko Ospitalea ezagutzeko gonbitea egin die eskualdeko herritar guztiei. Azaroaren 20an, 21ean, 22an eta 27an izango dira bisitak, 16:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 18:00etara. Norberak aukeratu ditzake bisita eguna eta ordua, baina bisitak era egokian antolatu ahal izateko, aurrez izena eman behar da, [BisitakEibar.OSI-DEBABARRENA@osakidetza.eus](mailto:BisitakEibar.OSI-DEBABARRENA@osakidetza.eus) helbidera idatzita. Bertan zehaztu behar dira norberaren izen-abizenak, herria eta bisita eguna eta ordua.

## Jubilatu eta pentsiodunen bilera astelehenean, Herriko Antzokian

Jubilatu eta pentsiodunek batzarra egingo dute astelehenean, hilaren 19an, Elgoibarko Herriko Antzokian, 11:00etan hasita. Euren eragiten dien gaiak aztertuko dituzte, tartean pentsioen gaia. Ondoren, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute Maalako parkean. Era berean, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan dadin eskatzeko kanpaina hasi dute Elgoibarko denda eta tabernetan. Pensi3n m3nima de 1.080 euros, hemen eta orain dioten karteltxoak atera dituzte, lelo horrekin bat egiten duten establezimenduetan jartzeko, eta herriko elkarte eta eragileekin batzen ere hasi dira, atxikimendu gehiago jasotze aldera.

## Viento Sur Gastroteka, Bacalaos Alkorta Eibarko Hiria pintxo txapelketako finalean



Elgoibarko bost ostalarik parte hartu dute Bacalaos Alkorta Eibarko Hiria II. Pintxo Txapelketan, eta Viento Sur Gastroteka-koek prestatutako pintxoak sailkatu da finalerako. San Roke Kafetegia, Ibai Ondo, Mahala eta Sigma dira parte hartu duten beste tabernak, eta Mireia Alonso, Josu Mugerza, Jesus Portugal eta Aitor Buendiak osatu dute epaimahaia. Epaimahaikideek nabarmendu dute kalitate handiko pintxoak izan direla Elgoibarren lehiaketarako aurkeztutako bostak, eta ia zko edizioarekin alderatuta, tabernariak nabarmen hobetu dutela pintxoak aurkezteko modua eta baita pintxoaren euren zaporea ere. Finala domekan jokatu da, Eibarren, 12:30ean, udaletxe patioan. Eibarko Baratze tabernako pintxoak eta Ermuko Sagarrako pintxoak dira beste bi finalistak.

## Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira egitarau oparoa antolatu dute Elgoibarren eta Mendaron

Indarkeria matxistaren kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron datozen egunetarako. Hasteko, gaur, hilak 16, bideo foruma izango da Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 21:30ean hasita. *7 diosas* filma ikusi eta aztertuko dute hara batzen direnek, Loredi Salegik lagunduta. Astelehenean, berriaz, jabeakuntza tailerra antolatu dute, *Minik ematen badu, ez da maitasuna* izenburupean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 18:00etatik 20:00etara (gaztelaniaz) eta Loredi Salegik gidatuko du saioa. Azaroaren 20an, asteartea, maskulinate eredu berriez mintzatuko da Xabier Odrizola Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30ean. Asteazkenean, hilaren 21ean, berriaz, Ines Bengoa ipuin kontalariak *Berdintasuna maite dugulako* ipuina kontatuko du Gotzon Garate Udal Liburutegian, HH5eko neska-mutilentzat (17:00etan), eta azaroaren 24rako autodefentsa tailerra iragarri dute. Olaizaga kiroldegian izango da, 14 urtez gorakoentzat (9:00etatik 12:00etara). Azaroaren 25erako, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunerako, elkarretaratzerako deitu dute



Elgoibarko Udalak herritarrek. Kalegoen plazan izango da elkarretaratzea, 13:00etan. Azaroaren 27an Fabricando mujeres filma estreinatuko dute Herriko Antzokian, 19:00etan. (Doan).

Mendaron ere aurreratu dute azaroaren 25erako egitaraua. Ohi legez, *Women in Black* ekintza egingo dute 19:00etan plazan, gizonak hil dituzten emakume guztiak oroitzeko, baina horrez gain, hilerri bihurtuko dute frontoia 12:00etatik 14:30era eta 16:30etik 19:30era, herritarrek dolua agertu dezaten.



# Elgoibar Erdi Aroan: Villamayor de Markina

***Villamayor de Markina, Elgoibar deitua* liburua kaleratu berri du Javier Elorza historialariak (Soraluze, 1953), eta XIII-XVI. mendeetako historia jaso du bertan. 14 bat urtetako lanaren emaitza da liburu hau. Bost-sei urte inguru eman zituen Espainiako artxi-boetan informazioa biltzen, gero beste hainbeste informazioa txukuntzen, eta azken hiru urteetan idatzi du liburua. Pitxintxu eta Gorostiza dendetan eskuratu daiteke, 10 euroan.**

- AINHOA ANDONEGI -


**D**ebabarrenean dauka interesa Javier Elorza historialariak. Orain arte idatzitako liburuak ere eremu honetan kokatu ditu, eta azken lan hau ere, gertuko historian dagoen hutsunea betetzera dator. Elorzak esandakoaren arabera, Erdi Aroko informazio gutxi dago jasota liburuetan, eta lan horretan dihardu azken urteotan. *Eibar: Orígenes y Evolución* liburua kaleratu zuen 2000. urtean, eta orain, Elgoibar eta Mendaroko historia jaso du, Erdi Aroan bi herri hauek bat zirelako.

1346an eman zuen Gaztelako Alfontso XI. Erregeak Elgoibarko herria sortzeko hiri-gutuna. Larruki original hura galduta dago nonbait, eta Elgoibarrek ez dauka hiri-gutun originalik. 1420. urtean jasotako konfirmazio-gutuna dauka Elgoibarrek. Gutun horretan Juan II.a Erregeak berretsi egiten du 1346an Alfontso XI.ak emandako baimena. "Elgoibar eta Mendaroko gizon onei ematen zaie herria sortzeko baimena"... jartzen du hiri-gutunean, besteak beste.

Villamayor de Markina izenarekin sortu zuten hasierako herria. Garai hartan probintziak oraindik sortu gabe zeuden, eta ez zegoen muga politikorik. Gipuzkoa, esaterako, 1397an sortu zen. Ordura arte, elizak ezartzen zituen mugak, eta elizaren antolamenduaren arabera banatzen ziren herrien lur-eremuak. Hemengo ingurunea Durangoko Tabira Artzapezgoaren menpe zegoen, baina geografikoki ez zegoen Bizkaiko botereen menpe. Durangoko Tabirak hogeitik gora eliza zeuzkan bere baitan, gehienak Bizkaikoak, baina inguru honetako lau eliza ere haren menpekoak ziren: Soraluzekoa, Eibarkoa, Elgoibarkoa eta Astigarribiako San Andres eliza. Ingurune hau Gipuzkoako eremutzat zuten, mugan zegoen, eta hortik hartu zuen gure herriak Markina izena. Garai hartan *marka* hitza erabiltzen zen muga esateko, eta *markina* hi-



# Villamayor de Markina (Elgoibar) - XIV. mendean



Villamayor de Markina, XIV. mendean.

*Villamayor de Markina  
izenez sortu zuten  
herria, ingurune hau muga  
edo marka zelako.  
Markina horretako herririk  
handiena zen gurea*

tzak marka txikia esan nahi du. Markina horren barruan herririk handiena zen gurea, Eibar bera baino handiagoa, eta hortik hartu zuen Villamayor de Markina izena. Elgoibarrek bi mila biztanle inguru izango zituen orduan. Ez da erraza Erdi Aroko biztanle kopuru zehatzak aurkitzea, baina garai hartan *foguera* edo sukaldeak banatzen ziren herrietan, probintziak egiten zituen gastuak kalkulatzeko. Elgoibarrek 64 zituen, eta sukalde bakoitzeko 32 bizilagun kalkulatu ziren. Soraluzek 28 zituen, eta Eibarrek, 32. Javier Elorzari bitxikeria iruditzaio Elgoibar izanik herririk handiena, hiri-gutuna lortzen azkena bera izatea. Soraluzek 1343an lortu zuen hiri-gutuna, Eibarrek 1346ko otsailean, eta azkena izan zen Elgoibar, 1346ko abenduaren 20an eskuratu zuelako.

Hiri-gutunean informazio asko zegoen, eta besteak beste, herriren mugak ere zehazten ziren. Horren arabera Ugarroako etxetik hasita, (Maltzaga), Sallobente ingurura eta Astigarribiara arte iristen zen Elgoibar. Lur-eremu zabala izan arren, gaur egun alde zaharra bezala ezagutzen dugun gunean eraiki zuten herrigunea. King-Kong inguruan zegoen Olasotarren errota, eta gaur egun Leku-Eder parkea dagoen tokian erretena edo kanala zegoen. Kanal hori eta ibaiaren arteko kanpa edo lautadan eraiki zuten herria, Elgoibarko kanpa bezala ezagutzen zena. Horregatik, gero, Gipuzkoa sortu zenean, probintzia horren barruan sartu zuten herria eta ordurako ez zeukan zentzurik muga edo marka hitza erabiltzeak. Bizkaiko Markina izango zen gerora muga, Aiasiatik beste aldera dagoen herria, hain zuzen. Beraz, Villama-

yor de Markina izena erabiltzeari utzi zioten, eta poliki-poliki Elgoibar izena nagusitzen da dokumentuetan. Hipotesi edo teoria baten arabera, ELG lexemak gorago dagoela esan nahi du, hortaz, Elgoibar izenak ibarreko gaina edo gaineko aldea esan nahi du. Elgeta edo Elgea ere erro beretik datoz.

Elgoibarko kanpa aukeratu zuten beraz, hiribildua sortzeko. 177 metroko luzera eta 82 metroko zabalera zuen ibar erosoak zen. Ugarroa eta Basarteko errekaetako tartea zen, herria artikulatzeko eta hesitzeko lekurik egokiena. Hegoaldetik harritzak, bide publikoak eta Ubirtarteko ubideak zeuden; ekialdetik edo mendialdetik, errota zaharren erretena; beste aldean, Deba ibaia. Ibaia oso garrantzitsua zen, bai ura lortzeko eta baita eraikuntzarako harriak ateratzeko ere. Azkenik, Iparraldean, Buruñanotarren Errondako dorrea zegoen, gaur egun Kultur Etxea dena. Dorre hau harresitik kanpora geratzen zen. Harresien barruan gaur egungo alde zaharra zegoen: Errosario eta San Bartolome kaleak eta Kalebarren eta Kalegoen plazak. XV. mendearen bigarren zatian herria handitzen hasi zen, bai demografikoki eta baita fisikoki ere, baina harresi barruan ez zegoen etxe gehiago eraikitzeko aukerarik. Hortaz, harresietatik kanpora kale berriak sortzen hasi ziren. San Frantzisko kalea etxez bete zuten, eta Santa Klara auzoan ere egin zituzten etxebizitza batzuk.

### AGINTARIAK

Erdi Aroan Elgoibarren familia erreferente bat izan bada, hori

## *Elgoibarko kanpa izenez ezagutzen zen eremuan eraiki zuten hiribildua. Probintziak sortu zirenean Elgoibar izena erabiltzen hasi ziren.*

Olasotarra da. Familia honen sustraiak Araban zeuden, Ganboa abizena zuten, baina Olasoko jauregian bizi zirenez, herrian Olasotarrak izenez ziren ezagunak. Gaur egun hilerria dagoen lekuan zegoen jauregia, eta Olasoko San Bartolome parroikia ere bertan zegoen. Herritarrak herrigunetik Olasora joaten ziren mezatarara. Gerora, Olasotarren gainbehera etorri zenean, herrigunearan hasi ziren Pietateko eliza egiten, Olaso oso urruti geratzen zelako eta ordura arte agintariak izan zirenak jadanik ez zeudelako herrian. Harresiaren kanpoko aldean egin zuten, San Frantzisko iturria dagoen inguruan eta haren segidan Frantziskotarren komentua eraiki zuten, gaur egun Aita Agirre eraikina den tokian. Gaur egungo San Bartolome parroikia berriagoa da. Elgoibarrek bi sute izan zituen, eta horrek erraztu egin zuen San Bartolome parroikia berria egitea. 1560an izan zen lehenengo sutea, baina suterik handiena 1605ean izan zen. Horri esker harresiak bota eta ordura arte hesituta zegoen gunea handitzeko aukera izan zuten. Harresi barruan ez zegoen parroikia berria egiteko aukerarik, baina harresiak bota zituztenean sekulako eremua zabaldu zen Kalegoenetik aurrera. Orduan hasi ziren frontoia, udaletxea eta parroikia egiten. Udaletxea, esaterako, XVIII. mendekoa da.

### **MENDARO**

Mendaron mugak ezartzea ez zen erraza izan. Elgoibarko herria sortzeko emandako hiri-gutunean Arnoate, Sahatzu eta Lizarantzu ingururainoko lurak ematen zaizkio, baina lur horiek aurretik Mutrikuri emandakoak ziren, 1200. urte inguruan, Mutriku sortu zutenean, hain zuzen. Garagartzako lurak, bestalde, Debakoak ziren, eta Kilimoitik honuntzakoak, Elgoibarkoak. Elizara Azpilgoetara joaten ziren hango biztanleak. Baina ibaia gurutzatu behar izaten zuten horretarako, eta ez zen hain erraza izaten garai hartan. 1453an, biztanleria handitzen hasi zenean, Vatikanok emandako bulda baten bidez, Garagartzan eliza eraikitzeko baimena lortu zuten. Olasotarren nagusia izugarri haserretu zen, Azpilgoetara joaten ziren bizilagun asko galduko zituelako. Mutriku, Deba eta Elgoibar 150 urtez ibili ziren borrokan gutxienez, Mendaroko lurren jabetza nahi zutelako.

### **BURDINOLEN GARRANTZIA**

Villamayor de Markina sortu aurretikoak dira burdinolak, eta Erdi Aroan burdinolak ziren ekonomia iturri garrantzitsuena. Elgoibarren eta Mendaron burdinola asko zeuden, eta jende pila batek egiten zuen lan burdinolen bueltan. Langileez gain, eskribauk ere izaten zuten lana kon-

tratuak egiteko edo edozein dokumentu idazteko. Baserria edo baratza ere garrantzitsua zen garai hartan. Etxe bakoitzak bere ortua zeukan, eta eguneroko jana etxean sortzen zuten. Askok txabola-txo bat ere izaten zuten txerriak hazteko,

eta txerriari esker urte osorako jana izaten zuten.

Gerora, armagintzara eboluzionatu zuen industriak. Eibarren indar handia hartu zuen armagintzaren industriak. Hasieran armagintza txikia lantzen zuten: pikak, geziak... Baina gerora, XV. mendean, lonbardak egiten ere hasi ziren. 1510. urtean Eibartik Ingalaterrako erregearentzako 700 lonbarda bidali ziren. Horrelako produkzioa egin ahal izateko jende asko behar zen. XVI. mendean eskopetagintzan hasi ziren. Urteetan izan zen armagintza ingurune honetako ekonomia iturri nagusia. Gaur egun, erreminta makina da Debabarrenean ekonomia aktibitate nagusia.



*Gaur egun San Frantzisko kalea denaren Erdi Aroko irudia. Arg. Casimiro Osoro.*

# JOSTAILU AUKERAKETA:

*zer hartu kontuan?*



## FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

### KULTUR ETXEKO SOTOAN

AZAROAREN 21EAN, EGUAZTENA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 22AN, EGUENA, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 23AN, BARIKAKUA, 17:00ETATIK 18:30ERA

AZAROAREN 24AN, ZAPATUA, 11:30ETIK 14:00ETARA



OHARRA

10 URTETIK BEHERAKO EK HELDU BATEK  
LAGUNDUTA EGON BEHARKO DUTE.

60 JOSTAILU  
BAINO GEHIAGO

JOSTAILUEN  
INGURUKO  
AZALPENAK

JOSTAILUETAN  
ARITZEKO  
"JOLAS TXOKOA"





Elgoibar eta Mendaroko gimnastak, Eibarko Ipuruko kiroldegian, entrenamendu saio batean.

## Neska-mutil elastikoen kirola

**Gometan jolasten dutenak badira, baina baita goma diruditenak ere. Izan ere, pista gainean hankak, besoak eta gorputza bera gomen pare tiratu eta tolesten dituzte. Zein dira, baina, pista gainean aritzen diren horiek? Bada, gimnastika erritmikoa egiten dutenak; uztaiak, baloiak, mazak eta zintak erabiliz eta ballet-a, gimnasia eta dantza konbinatuz figurak osatzen dituztenak, musika lagun. Eibarko Ipurua Gimnasia Erritmiko taldeak urte luzez dihardu gimnastika erritmikoan eta ikasturte honetan Elgoibarko eta Mendaroko zortzi neska ari dira taldean. Gimnastika erritmikoa kirol gogorra den arren, gustuko izanez gero pozik aritzeko modukoa dela esan digute gimnastek beraiek eta Ipurua taldeko presidente Carmen Barojak.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

**T**elebistaz edo filmaren batean ikusita, lagunak animatuta zein dantza gustuko izan eta gorputz flexiblea izanik gimnastika erritmikorako gogoa piztu zitzaion 6 eta 19 urte bitarteko neska elgoibartar eta mendarotar hauei. Baina herrian aukerarik izan ez eta Eibarrrako saltoa egin zuten Alba Etxebarriak, Iria Fernandezek, Susane Canok, Irune Del Amok, Uxue Etxebarriak, Nora Mujikak, Joselin Padillak eta Miren Legarrak. Hasi berri dira batzuk eta hiru urtez dihar-

dute besteek, Ipurua Gimnasia Erritmiko taldean.

Presidentearen esanetan, urtetan maila eta entzute handia izan du Eibarko klubak eta hori lortzeko entrenamendu asko behar da. Neska hauetako batzuk, esaterako, bi orduko saioak egiten dituzte astean birritan, eta bi ostiralean behin, beste bi orduko bat.

“Lehiaketetarako prestatzea gogorragoa da. Gogorrena luzatze-ariketak dira, eroriz gero hasieratik egin behar baita

dena berriz”, esan digu Irunek. Ordubetez beroketak egiten dituzte, eta hurrengo ordubetean taldekako ariketak, gero, taldean hasi ez badira, tresnekin egiten dituzte beste ariketa batzuk.

Tresna asko erabiltzen dituzte entrenamendu eta lehiaketetan, eta mailen arabera batzuk edo besteak izaten dira. Denak probatu dituztenak badaude eta batzuk besteak baino gehiago gustatzen zaizkie maizago erabiltzen dituztelako edo beraiantzat errazagoak direlako. Uz-



ondo ikasten dituzte pausoak. "Koreografiak entrenatzaileak prestatzen ditu, eta guri gustatu ala ez, normalean ez dituzte, ez bada ariketaren bat egin ezin badugu edo gauzaren bat beti gaizki irteten bada".

Pistara atera aurretik urduri egoten dira gehienak, baina irakasleak gomendio berdinak ematen dizkie beti, irten aurretik: "Esaten digu saiatzeko eta kontuan hartzeko entrenamenduetan gaizki ateratzen zitzaizkigun pausoak eta pixkanaka zuzendu ditugunak. Eta noski, nerbioekin ahazteko". Taldeka arituz gero, beti izaten da norbait noiz hasi esaten duena eta hainbeste entrenamendutan denak batera aritu ostean, lortzen dute koordinazioa. Hala ere, bada bakarka aritzea nahiago duenik. Norbere buruarekin bakarrik ikuskizuna egiteko aukera dago, baina zerbait ahaztuz gero, ezin da taldean bezala beste norbaiti begiratu eta hari segi, beste zerbait asmatu behar izaten da".

### DIZIPLINATIK BALOREETARA

Entrenamendu eta ikuskizunetarako gimnastika erritmikoa diziplina handia behar duen kirol gogorra da. Ipuuako presidente Carmen Barojak dio gimnastek berezko malgutasuna behar dutela. "Gorputzak berak eman behar du, eta hori landu egin behar da. Hasteko denei ematen diegu aukera, traba bakarria litzateke adin maila batean jende gehiegi egotea. Malgutasunaz gain, psikomotritzitatea eta norbere zein besteekiko koordinazioa ere lantzen dituzte, baita teknikak ere".

Diziplina behar da, bai, eta kirol sakrifikatua ere bada Carmen Barojaren esanetan. "Gimnastika erritmikoa egiten dituzten mugimenduak ikasteko era errepikapena da, eta hori da, hain zuzen ere, kirola gogorra egiten duena. Ordu asko entrenatzen dira, batik bat goi mailakoak. Gogorra da kanpotik ikusita, baina beraiek gozatu egiten dute. Talde-lana ikasten dute, baita fruituak lortzeko ahalegin handia egin behar dela ere. Beraz, balore horiek ere ondo barneratzen dituzte".

Kirol honen exijentziari eta itxitasunari buruz mito asko dagoela uste du Barojak,

adibidez, elikadurari lotutakoak. "Garai batean, beharbada, gimnastika erritmikoa aritzen zirenek janaria zorrotz zaindu behar izaten zuten, baina orain, ez horrenbeste". Erreportajerako argazkiak ateratzerakoan ere entrenatzaileak zuzen zehaztu die oin puntak nola jarri behar dituzten. "Baina hori nola egin behar duten ikas dezaten da. Lan asko egin behar dute, bai, baina beraiek oso pozik egiten dute eta beraien garapenean ere nik uste dut oso positiboa dela".

Entrenamenduetan ikasi eta landutakoa erakusteko modu bat lehiaketak dira, baina erakustaldiak ere egiten dituzte. "Gehienetan senideak joaten dira ikustera, baina Untzagan hainbatetan egin dugu Gimnasiaren Eguna eta goizetik iluntzera arte, entrenamenduak eta erakustaldiak egin dituzte taldekideek jendaurrean. Denek izan dute egiteko aukera, bestela, 100 gimnasta inguru daudenez, ez litzatekeelako posible izango. Esaterako, Mendaroko Mirenek ezintasun bat du, baina gutura ari da gurekin. Pena da berak lehiaketetan parte hartu nahi duelako, eta ez duelako horretarako aukerarik, baina Untzagakoa bezalako erakustaldietan pozik egiten du". Elgoibartik orain dela hiru edo lau urte hasi zen jendea Ipuuako taldean, eta noizbait Elgoibarren ikuskizunen bat egitea ere pentsatu dutela esan digu Carmen Barojak.

Erakustaldi horietan dotore asko agertzen dira gainera, profesionalak direnak telebistan agertu ohi diren moduan. "Mailotak aukeratzea zaila da, eskaintzen dizkigutenak hartu behar ditugu edo bestela guk aukeratu, baina telebistan ikusten diren horiek askoz ere dizdiratsuagoak izaten dira". Makilatu ere beraiek egiten dute beren burua.

Beraz, diziplina eta sakrifizioaren bidez, beraien gorputz malguekin ikuskizun dotoreetara egiten dute salto Elgoibarko eta Mendaroko neskek, gustura gainera, hori baita kirola eta dantza uztartzeko moduetariko bat, besteak beste.

taia da gehienek gustukoan dutena, baina pilota eta mazoekin ere ondo aritzen dira. "Gu pilotarekin lehiatzen gara gehienetan eta hori da gehien ezagutzen duguna; beraz, horrekin dakigu gauza gehien egiten", esan du Irunek. Zinta, ordea, zailagoa dela diote, gutxiagotan ibili direlako harekin eta batzuek probatu ere ez dutelako egin oraindik. Zintarekin, gainera, ondo ikasi arte, sekulako kolpeak ematen dizkiote elkari, baita norbere buruari ere. Tresnak bai, baina dantzarako pausoak eta beren elastikotasuna agerian uzteko mugimenduak ere ezinbestekoak dira gimnastika erritmikoa. "Niri gehien spagat egitea gustatzen zait, baina bizkarretik moldaerazagoa naizenez, tiratzeko zubiak-eta egiten ditugu", esan du Uxuek.

Ez dituzte beste kirol batzuetan bezala astebururo lehiaketak izaten. Uxuek berak azaldu digu bi fase izaten direla beren mailan eta horiek ondo egin beharra dagoela Gipuzkoakora sailkatzeko. Lehiaketetarako dantzak aurrez prestatzen dituzte, entrenatzaileak aukeratutako abestiek. Hauek lau zatitan banatu eta piskanaka



# On egin!

**GIDA GASTRONOMIKOA**  
 ...eta kitto! eta Barren astekarietan  
 argitaratutako jatetxe eta tabernen gida  
 2018ko azaroak 16



## AGUIÑASPI taberna

Urkizu 22. EIBAR

943 12 80 86

Eguneko menua, menu berezia,  
 gosariak, plater konbinatuak, razioak,  
 bokatak, hanburgesak, pintxoak...



## ALBERT taberna

Armagin 1. EIBAR

943 70 21 87

Eguneko menua. Egunero plater  
 konbinatuak, kazuelitak eta bokatak.  
 Ostegunetik aurrera afariak,  
 asteburuko menua eta karta.



## ARKUPE gastro pub

Isasi 2 . EIBAR

943 70 26 91

Gosariak, eguneko menua, karta,  
 talde-menua, plater konbinatuak,  
 hanburgesak, catering zerbitzua.



## BAISI taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 53 08 16

Espezialitatea: patata-tortilla,  
 Entsaladilla, bokatak, hanburgesak...  
 Ardoetan aukera zabala.



## BELAUSTEGI BASERRIA jatetxea

San Migel Gaina. ELGOIBAR

943 74 31 02

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak,  
 urrezko eta zilarrezko ezkontzak,  
 enpresa bazkariak eta kintoak. Karta,  
 eguneko menua eta dastatze-menua.



## BIRJIÑAPE kafetegia-jatetxea

T. Etxebarria 16 . EIBAR

943 82 13 41

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari  
 eta afariak, jaunartzeak, bataioak...  
 Zure aurrekontura egokitzen gara.  
 Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



## BOSSA gastroteka

Ego Gain 7. EIBAR

943 20 67 53

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak,  
 bokatak, razioak, pizzak eta  
 hanburgesak.



## GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 74 12 30

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza.  
 Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak,  
 eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



## IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR

943 25 60 28

Bazkari tradizionalak, parrilla,  
 enpresa menuak, karta eta  
 eguneko menua.



## KANTABRIA jatetxea

Arrate. EIBAR

943 12 12 62

Karta, menu bereziak, eguneko menua,  
 enpresa bazkariak, ezkontzak,  
 jaunartzeak, bataioak...



### **KILI KILI** croissanteria

Ibarkurutze 12. EIBAR

943 20 24 01

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



### **LUZAIDE** jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 75 61 66

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburueta eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



### **ONGI ETORRI** taberna

T. Etxebarria 21. EIBAR

943 20 70 07

Gosariak, pintxoak, karta, talde-menua, catering zerbitzua...



### **PAULANER** garagardotegia

Ego Gain 3. EIBAR

943 20 13 29

Garagardoetan aukera aparta, gosariak, eguneko menua, espezialitateak, hamburgeresak...



### **PORTALEA** taberna

Bista Eder 10. EIBAR

943 20 68 68

07:30etik zabalik. Eguneko menua. Ostiraletan hanburgesa menu berezia. Ostiral eta zapatuetan karta eta plater konbinatuak. Aste barruan enkarguz.



### **SALENTO** ristorante italiano

Pedro Migel Uruzuno 10. ELGOIBAR

943 74 01 96

Eguneko Menua, pizza italiarrak. Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.



### **SIGMA** jatetxea

Zizilion 1. ELGOIBAR

943 74 85 31

Jaunartzeak, bataioak, urrezko/zilarrezko ezkontzak, menua, karta, enpresa bazkariak, kinto ospakizunak.



### **SU BEROA** taberna

Bista Eder 11. EIBAR

943 47 77 79

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, entsaladak, hamburgeresak, razioak...



### **TIRO PITXON** jatetxea

Arrate. EIBAR

943 20 88 59

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



### **TXALTXA** jatetxea

Isasi 7. EIBAR

943 20 11 26

Pintxoak, plater konbinatuak eta razioak 18 €tako eguneko menua 30 €tako asteburueta menua eta karta.



### Hotel **TXARRIDUNA** jatetxea

Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

943 74 04 90

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.



### **ZUBI GAIN** taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 25 40 60

Ogitartekoak, plater konbinatuak, tapak, entsaladak, pintxo bereziak... Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.

## Zombie eta arima-galduek hartu zuten Kalegoen plaza barixakuan



Zombie, mamu eta beste arimek hartu zuten barixaku iluntzean Kalegoen plaza, Biraka dantza taldearen ikuskizunean. Kalejira beldurgarria zuten iragarria eta halakoxea izan zen Kultur Etxe paretik plazaraino egin zutena. Bidean hileta bat irudikatu zuten eta era guztietako izaki beldurgarriek osatu zuten hilkutxaren ondotik osatu zen segizioa. Hori bai, musika entzuten zutenean dantzan hasten ziren izaki guzti horiek, piztiak lasaitu eta hildakoak berpizteko ahalmena duelako musikak. 180 bat dantzarik parte hartu zuten kalejiran eta ondoren Kalegoen plazan egin zuten dantza emankizunean, eta jendetza handia batu zen ikustera.

## Ahotsak.eus-ek jasoko du Anton Abbadia Saria

Euskal Herri guztiko eta euskalki guztietako ahozko testigantzak etengabe jaso eta sarean eskumen librean jartzeagatik saritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ahotsak.eus* webgunea. Saria, Arrate Rodriguez artistak egindako orogarria, azaroaren 30ean jasoko dute Ahotsak-ekoek. Deba Ibarreko Badihardugu euskara elkartearen proiektu nagusia da Ahotsak, eta duela hamabost urte sortu zuten, Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzeko.

## Magosto jaia antolatu du Galiziako Kultur Etxeak biharko

Udazkeneko bezala, Magosto jaia antolatu du Galiziako Kultur Etxeak biharko. 300 kilo gaztaina erreko dituzte Maalako parkean, 11:00etatik aurrera, eta debalde banatuko dituzte gero. Ribeiro ardo txurria ere egongo da, baina ardoa erosteko katilua erosi behar da lehen-dabizi, bi euroan. Behin katilua erosituta, nahi beste ardo edan ahal izango da. Iaz, ez zuten Magosto jairik egin, ez zelako gaztaina urtea izan, baina aurten ale gehiago daukenez berriz egitea erabaki dute.

## Boluntarioak behar dira janari bilketarako

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean egingo den janari bilketan laguntzeko boluntarioak eskatu dituzte Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak. Interesatuek [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus) helbidera idatzita, 943 741 050 telefonora deituta edo Herritarren Arreta Zerbitzuan-HAZ (Santa Ana2, behe) eman dezakete izena.

## Jon Gurrutxagak kontzertua eskainiko du gaur gauean Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan



Arg.: Jairo Berbel

Sinuosek antolatuta, kontzertua eskainiko du Jon Gurrutxagak gaur gauean Kultur Etxeko sotoan. Urbil Artolarekin batera arituko da elgoibartarra, eta, besteak beste, *Kateak* azken bildumako abestiak aurkeztuko ditu. Lau abestirekin argitaratu du azken diskoa, formato txikian (gaur eskuragarri Sotoan). 23:00etan hasiko da emanaldia.





Joseba Elustondok eta Jon Garatek hiru urte daramatzate elkarrekin eskalatzeko. Pirinioetan eta Alpeetan ibili ostean, Patagoniako Fitz Roy mendilerroan jarri zituzten begiak, desirak eta ametsak. Hilabete inguru jardun zuten eskalatzaileentzat ikonikoak diren orratz izugarrietan eskalatzeko, joan den otsailan. Hango ibilera eta bizipenekin osatu zuten *Kotoizko Zaindariak* dokumentala. Joan den urrian estreinatu zuten Herriko Antzokian, Morkaikoren mendiko emanaldien zikloan.

- ASIER ORBEA -

# “Patagoniak alpinismoaren alde eta arte guztiak menperatzea eskatzen du”

## JON GARATE eta JOSEBA ELUSTONDO

ESKALATZAILEAK

### ◆ Nola eta noiz erabaki zenuten Patagoniara eskalatzera joatea?

**Jon Garate:** Duela pare bat urte hasi ginen ideia lantzen. Alpeetan eskalatzeko jardun genuen, eta elkarrekin gustura ibili ginenez, zera pentsatu genuen: zergatik ez behingogatik handian pentsatu eta eskalatzeko helburu erakargarri bat jarri gure buruei? Amets egiten ari ginela irten zen Patagoniara joateko ideia, domeka goiz batean, raba batzuk eta garagardo batzuk aurrean genituela izandako berbardian. Biok motibatu gintuen.

**Joseba Elustondo:** Jarritako helburua bete ahal izateko bidea prestatzeko aukera ematen zigun gainera erronka honek. Amets bat duzu eta lortu arteko bidea planifikatu eta gauzatu behar duzu. Prozesu hori ere polita da. Patagoniara joan aurreko mendi-irteerak eta oporrak antolatzen genituen, entrenamendu modura. Horregatik laga genuen urte eta erdi inguruko tarte.

### ◆ Nola iritsi zarete eskaladara.

**Jon:** Karaktera lagunekin igotzen hasi nintzen mendian. Mendi taldeekin eginiko irteerak etorri ziren gero, eta une batean konturatu nintzen toki politak ikusteaz gainera beste hainbat aukera eskaintzen dituela mendiak. Entsalada bat egitea modukoa da, norberak aukeratu behar ditu gustuko dituen osagaiak edo jarduerak. Eskaladak, alpinismoak, badituzte pizgarri batzuk Xoxotera lagunekin igo eta hamaitakoa jateak ez dituenak, baina biak dira balekoak eta bateragarriak, ba-



Jon Garate



Joseba Elustondo

koitzak bere momentua baitu. Joseba eta biok Pirinioetako paretetan hasi ginen elkarrekin eskalatzeko. Jauzi bat eman genuen gero Alpeetara joanda. Josebak nik baino eskarmentu handiagoa du mendian, Himalaian edo Peruko Andean ibilitakoa baita, besteak beste.

### ◆ Zer esanahi dauka Cerro Torre mendia eskalatzaileentzat?

**Joseba:** Eskalatzaileentzako mendirik adierazgarrienetakoa eta ezagunetarikoa da Cerro Torre, Hego Patagoniako izotz-zelaiaren ertzean dagoen 3.133 metroko mendia. Estetikoki ederra izateaz aparte, mendizaleetasunaren historian arrastoa laga du, mendiko literatura asko eta asko baitago idatzia mendi honen inguruan. Gure eskalada gaitasunetatik kanpo dagoen mendia da, baina, Cerro Torre. Fitz Roy mendilerroan aritu ginen eskalatzeko. Bertako haitzaren kalitatea bezalakorik ez dagoela ere esaten da. Granitozko haitz pikoak dira inguru hartakoak. Euskal Herriari Aiaiko Harrietan bakarrik dago granitoa. Kare harria da nagusi hemengo eskalada lekuetan, Axtarten, Araotzen...

**Jon:** Mendi ikusgarriak eta dotoreak izateaz gainera, Fitz Roy mendilerroan egiten diren eskaladak primeran egokitzen dira gure estilora, Pirinioetan edo Alpeetan dabilgun eskalatzeko modura. Azkar eta arin eskalatzeko dugu. Menditik gertu kanpenean gaua pasa, hurrengo egunean eskalatu, jaitsi eta Chalten herrian geneukan oinarritzeko kanpalekura buelta, hiru egun pareta bakoitzeko. Patagoniak aukera hori



Joseba Elustondo 'Mojon Rojo' tontorrean (2.163 m.). Ezkerrean ikus daitezkeen orratz zorrotzetan nagusiena da Cerro Torre (3.133 m.) eta Elustondoren gainaldean, eskubitara, Fitz Roy (3.405 M.). Argazkia: Jon Garate.

ematen zigun. Himalaiako mendiak, berriaz, izugarri handiak dira eta mendi magaletara ailegatzeko bakarrik egunetako trekking-ak egin behar dira. Guk ez geneukan horrenbeste opor egun horrelako bidaia bat egiteko.

#### ♦ Asko kosta zitzaizuen igo beharreko paretak eta bideak aukeratzea?

**Jon:** Gaur egun gero eta informazio gehiago dago, eta han eta hemen topatutakoa irakurriz asko ikasi daiteke. Liburuek saltzen duten irudia errealitatearekin bat datorren egiaztatzeko zortea ere izan genuen han egonak diren elgoibartarekin berba eginda. Iosu Merino duela urte batzuk egon zen Patagonian eskalatzeko eta Eñaut Izagirre orain gutxi egon da. Hala, batutako informazioarekin eta entzundakoen gure neurrira eginiko jarduera antolatuta genuen.

**Joseba:** Hilabeteetan eskalada asko egiteko aukera ematen duen tokia da Patagonia. Fitz Royk sei orratz ditu eta laupabost Cerro Torre. Arazoa eguraldia da. Gerta daiteke hilabeteetan eskalatzeko aukera

## “Comesaña-Fonrouge bidetik igo genuen Guillaumet orratza”

- JON GARATE -

bakar bat ere ez izatea. Eguraldia kaskarra da, eta haizeak oso bortitzak izan daitezke, Antartikatik gertu dagoelako. Hortaz, komeni da alternatibak izatea. Ezin bada nahi dugun mendira joan, zailtasun tekniko txikiagoko paretaren bat igo, boulderra praktikatu, korrika egin... Eskalatzeko aparte, mendiarekin zerikusia duten jarduera asko egin daitezke Chalten inguruan; izugarria da aukera. Trekkingaren munduko hiriburua deitzen diote. Zirkuitu eta bide asko daude, egun batean egitekoak batzuk eta baita hamar egunetako ibilaldiak ere. Nahiko ondo prestatuta dauden bideak dira. Horietatik kanpo, inguru erabat basatia da. Ez dago seinalez tapenik eta errekek gurutzatzeko ere norberak topatu behar du lekuri egokiena, batzuetan tirolinak erabilita.

kiena, batzuetan tirolinak erabilita.

#### ♦ Eta, zer moduz portatu zen eguraldia?

**Jon:** Zortea lagun izan genuen lehen astean, eta gure helburu nagusienetakoa zen Guillaumet orratza eskalatzeko aukera izan genuen. Animoak hauspotu zizkigun gelditzen zitzaizkigun hiru astei begira. Dena ikusten genuen egingarri, *kar kar*. Gu egon aurreko urtean, udako denboraldiko hiru hilabeteetan mendira igozteko aukera bakar bat ere ez zela egon esan ziguten han ezagutu genituen eskalatzailak. Guk eskalatzeko moduko bi denbora tarte eduki genituen hilabeteetan. Loteria tokatu zitzaigun.

#### ♦ Nolako da Guillaumet orratzean (2.580 m.) igo zenuten bidea?

**Jon:** Tontorrera ailegatzeko dauden bideetan errezenetakoa aukeratu genuen: Comesaña-Fonrouge. 400 metroko bidea da, hasieran elur eta izotz bideak eta bigarren zatian granitozko paretak uzartzen dituenak. Gora ailegatutakoan ezin da oinez jaitsi eta rapelatu jaitsi behar da.

**Joseba:** Igo ostean, beste aldetik jaitea

erabaki genuen erosoagoa eta zuzenagoa zelako. Kontua da ez dakizula ziur nora eramango zaituen rappelak, ingurune ezezagunean geundelako, bai goranzko bidean eta baita beherazkoan ere. Mendiko gidari batek emandako jarraibideek dezente erraztu ziguten jaitsiera. Alpinismoaren alde eta arte guztiak menperatzea exigitzen du Patagoniak. Elurretan, izotzetan eta haitzean moldatzen jakin behar da.

**Jon:** Halaxe da. Han ezagutu genuen alpinista batek esan zigun moduan, edozein lekutatik jaisteko artea edo gaitasuna behar da Patagonian. Orratzak eskalatzeari gauza bat da, baina gero horiek denetatik jaitsi egin behar da, eta askotan igoerak baino konplikatuagoak dira. Jaitsiera batean harri artean trabatu zitzaizun soka eta hiru bat metroko zatia moztu behar izan genuen. Dauzkazun baliabideekin inprobisatzera behartzen zaituzten mendiak dira.

#### ♦ Patagoniako eguraldi petralak asko baldintzatzen du orduan.

**Joseba:** Bai demaseko eragina dauka. Han uda izan arren, Chalten herrian elurra egiten ikusi genuen. Eta gero 25 graduko egunak ere izan genituen. Estrategia ondo pentsatzera behartzen zaitu. Hogeitau orduko eguraldi on tarteak izango duzula esaten dute iragarpenek, baina eguraldi on hasten denean ezin zara irten herritik hogeitau kilometroko motxila batekin, bi soka, kanpin denda... Materiala lagatzeko depositoak egin behar dira aurrez, edo lehenago irten bestela.

**Jon:** Lehen zailagoa izango zen, 2005. urtera arte ez baitzegoen aurreikuspen meteorologiko fidagarririk inguru horretarako. Guk Estatu Batuetako militarrek mundu guztirako erabiltzen duten iragarpen sistema erabili genuen. Virginian dagoen ordenagailu batek esaten dizu Patagonian egingo duen eguraldia. Gainera, nahiko gordinik ematen dituzte datuak, grafikotan. Haizearen indarra nudotan, presioa... han ez da ageri eguzkiaren ikono edo antzerakorik. Interpretatu egin behar dira datuak. Horixe zen jaiki eta egiten genuen lehen lana. Horren ara-

bera antolatzen genituen planak.

#### ♦ El Chalten herritik abiatzen zineten.

**Jon:** Bai. Apartamendu moduko batean hartu genuen ostatu. Hotel handi bateko garbitzaileak bizi ziren etxe bateko gela bat... egia esan. Bi baldintza ipini zizkigun etxejabeak, gauean festarik ez egitea eta egunero dutxatzea. Badirudi ondo ezagutzen dituztela eskalatzaileak (irribarrez). Hori bai, Chaltenen hobeto hartzen gintuzten eskalatzaileak trekking zaleak baino. Udan 5.000 biztanle inguruko herri txikia da Chalten, inguruko mendietarako abiapuntua, Pirinioetan Jakatik gertu dagoen Torla izan daitekeen moduan. Duela 15 urte asfaltatu gabe zeuden mendira joateko bideak eta astoak eta erabiltzen zizkizuten; orain askoz erosoagoa da.

*“Konfidantza osoa izan behar da sokalagunean, zure bizitza bere eskuetan baitago”*

- JOSEBA ELUSTONDO -

#### ♦ Ze zirrara eragin zizuen horrenbeste alditan liburuetan eta irudietan ikusitako mendiak aurrez aurre ikusteak?

**Jon:** Guk egiten dugun eskalada estilorako munduko formaziorik ederrenak dira, bai izotz eta bai haitz eskaladarako. Handitasun horretan egotea sekulakoa izan zen ni moduan sekula Europatik atera gabe dagoen batentzat. Itzela.

**Joseba:** Hango mendiak, orratzak eta Hego Patagoniako izotz-zelaia egun argi batean ikustea izugarria da, Antartida txiki bat modukoa da. Ur ez gezako munduko hirugarren erreserba handiena ei da Ipar eta hego poloen ondoren. Dena da ikaragarria han. Itsasoa ematen duten 80 kilometro luzeko lakuetan izebergak ikusten dira ur gainean. Ez dauka zerikusirik hemengo paisaiekin.

**Jon:** Gainera bakar bakarrik zaude han. Ez dago koberturarik eta erreskaterako ere aukera gutxi. Alpeetan-eta munduko erreskate talde onenak daude, baina han sokalagunarekin bakarrik zaude. Horrek

beste puntu bat ematen dio abenturari.

#### ♦ Nolako sokalaguna da Joseba ?

**Jon:** Ni baino eskarmentu handiagoa du eta lasaitasun handia ematen dit. Badakit berak bere parte ondo egingo duela eta nire hoberena emateko aukera ematen dit horrek. Gaztetasunak badauzka abantaila batzuk, baina fregatu batzuetan sartzera ere eraman zaitzake, eta esperientzia txar bihurtu daitezke horiek. Horregatik asko baloratzen dut Joseba moduko sokalagun zentzuduna. Alberto Iñurrategik esaten zuen moduan "bat ez da batera iristen eta bi bi eta erdi dira".

#### ♦ Eta zu, Joseba, nola moldatzen zara Jonekin?

**Joseba:** Konfiantza osoa izan behar da sokalagunean, zure bizitza bere eskuetan baitago mendian. Sokalagunen erlazioari buruz liburu asko idatzi dira. Kimika eta elkar ondo ezagutzea nahitaezkoa da. Jonek badauka asko baloratzen dudana gauza bat, mendirako duen zaletasuna edo motibazioa. Ez ditut bera baino motibatuago dauden asko ezagutzen. Pertsona irekia da gainera, eta beti dago gogoz eta prest edozer gauza berriri ekiteko. Berari buruz horiek dira esan ditzakedanak, publikatzeko behintzat.

#### ♦ Eta orain zer?

**Joseba:** Azken hiru urteetan elkarrekin eskalatzeko jarduteko zortea izan dugu, eta ahal dugun bitartean eta ametsak eta proiektuak dauzkagun bitartean egongo da motibazioa mendira joateko. *Kotoizko Zaindariak* dokumentalak ere horren inguruan berba egiten du. Bi lagunen ametsaz eta nola amets horrek aurrera jarraitzeko hauspoa ematen digun. Gu bion pasioa mendia da, eta mendiarekin dute zerikusia gure ametsak, baina beste edozein motatakoak izan daitezke ametsak. Mezu hori zabaldu nahi dugu dokumentalarekin. Borrokatzeko eta ilusionatzeko motibo bat edukitzeaz dihardu, guretzat mendia den moduan ingelesa ikastea edo seme-alabei ahalik eta hezkuntza hoberena ematea edo familia eraikitzea izango dira beste batzuentzat.

## 56 elgoibartarrek eta 15 mendarorrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa

Behobia-Donostia maratoi erdi entzutetsua jokatu zen domekan, eta Elgoibarko eta Mendaroko antxitikariak ere izan ziren proba horretan: 56 elgoibartar eta 15 mendaror iritsi ziren helmugara. Guztira, 24.917 lagunek amaitu zuten aurtengo Behobia-Donostia lasterketa. Gure ordezkarien artean, Soraluzen bizi den Jokin Muñoz mendarorra izan zen azkarrena gizonetzkoetan. Muñoz sailkapen nagusiko 42. postuan sailkatu zen (1:09:33). Emakumezkoetan, aldiz, Cristina Villalobosek bost segundoan ondu zuen iazko marka eta 1:24:20 denboran osatu zuen ibilbidea. Lehen hogeit hamar emakumeen artean sailkatu zen, eta laugarren postua eskuratu zuen beteranoetan. Bestalde, patinatzaileen proban lehiatu ziren Idoia Txurruka elgoibartarra (125. postuan sailkatu da, 01:01:02 denborarekin) eta Asier Arriola mendarorra (73. postuan sailkatu da 53:47 denborarekin).

### ELGOIBARTARREN ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

#### ELGOIBAR.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
147	Ioritz Conde Arantzamendi	01:13:27
154	Roberto Gonzalez Fernandez	01:13:27
304	Julen Salaberria Anton	01:15:51
405	Inigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:17:15
1248	Oier Irazabal Garciandia	01:23:14
1436	Gorka Cebrian Arregui	01:24:09
1485	Cristina Villalobos Santos	01:24:20
2051	Juanan Martin Leiva	01:26:41
2212	Gurutz Quintano Aguirrezabal	01:27:14
2534	Angel Quintana Garcia	01:28:15
2605	Luis Santamaria Fernandez	01:28:31
2651	Asier Cordon Blazquez	01:28:40
3939	Iosu Iriondo Elorza	01:32:04
4141	Josu Idiakez Lopez De Larrinzar	01:32:34
4351	Manuel Carmona Carrasco	01:33:02
4380	Angel Eguren Belaustegi	01:33:05
4624	Jokin Rodriguez Magunazelaia	01:33:43
5071	Aitor Aranzamendi Iriondo	01:34:45
5143	Jose Antonio Ruiz Del Rey	01:34:54
5153	Humberto Fernandez Gonzalez	01:34:55
5678	Miguel Angel Montes Crespo	01:36:02
5709	Joseba Juaristi Gurruchaga	01:36:05
5910	Iñigo Aduriz Lekuona	01:36:32
6280	Hasier Goikoetxea Iriondo	01:37:16
7242	Zigor Bengoetxea Ansola	01:38:54
7669	Pilar Arriola Diez	01:39:35
7830	Javier Hernando Albert	01:39:50
7862	Ander Soraluze Juaristi	01:39:52
8205	Maite Uribe Odria	01:40:30
8525	Francisco Javier Boo Fernandez	01:41:06
8545	Agurtzane Arriola Diez	01:41:07
9921	Gotzon Gurruchaga Bengoechea	01:43:31
11396	Maite Landaburu Azkarreta	01:45:57
11411	Aitor Zubiaurre Lizarralde	01:45:59
11726	Nerea Sanz Avila	01:46:33
11793	Eneko Arrizabalaga Garate	01:46:41
12796	Ismene Fulgencio Elizburu	01:48:32

#### ELGOIBAR.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
12806	Bikentzi Arregi Intxaust	01:48:33
12814	Maria Carmen Leon Arteche	01:48:34
15088	Andoni Etxeberria Aizpitarte	01:52:33
15101	Julen Etxeberria Fulgencio	01:52:34
16112	Julen Merino San Millan	01:54:23
16114	Unai Usatorre Juaristi	01:54:23
16717	Nora Miguez Perez	01:55:32
16724	Olatz Gil Epelde	01:55:33
16726	Haritz Arribillaga Elizburu	01:55:33
17372	Oscar Rey Alonso	01:56:49
19082	Cristina Montero Garcia	02:00:24
19819	Ariana Nogales Babarro	02:02:11
20010	Xabier Elustondo Unamuno	02:02:47
20039	Samuel Ruiz De Lorenzo	02:02:50
22161	Igor Torres Castilla	02:10:04
22164	Ana Castilla Molin	02:10:04
22488	Lidia Suarez Alvarez	02:11:34
24807	Vanesa Gomez Álvarez	13:11:22
24874	Bruno Guerrero Labanda	13:45:27

#### MENDARO.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
42	Jokin Muñoz	01:09:33
375	Alonso Gomez Viña	01:16:49
1147	Josu Motriko Larrañaga	01:22:43
1230	Iñigo De La Iglesia Ugartemendia	01:23:07
1407	Israel Soto Calderon	01:24:01
2723	Borja Rodriguez Barreras	01:28:49
3484	Jon Romar Iriarte	01:30:53
3803	Eneko Salegi Leniz	01:31:44
6841	Luis Miguel Jimenez Rojo	01:38:14
6929	David Garcia Fernandez	01:38:22
9925	Igor Ezenarro Arriola	01:43:31
24293	Anto Gallastegui Martinez	02:29:41
24294	Jose Maria Cinto Gallardo	02:29:42
24377	Imanol Esnaola Alba	02:32:10
24620	Itxaso Real Juez	02:43:43

## Elgoibar Kirolaren Europako Herri izango da 2019an



Elgoibarrek lortu du izendapena, eta Kirolaren Europako Herri izango da 2019an. Kirolaren Hiriburu eta Hirien Elkarten Federazioak (ACES Europe) Elgoibarko kirol azpiegituren eskaintza eta kalitatea nabarmendu ditu, kirol ekitaldiak antolatzeko gaitasunarekin batera. Erakundeko presidente Gian Francesco Lupatelli gutuna bidali zion Udalari izendapenaren berri emanez. Kirolaren hiri eta herri izendatutako guztiek bandera bat jasoko dute Bruselan, Europako Parlamentuan egingo duten galan, abenduaren 4an. Elgoibarko alkate Ane Beitia ere han izango da. Udalak balorazio oso positiboa egin du, eta pozik agertu da izendapen garrantzitsu hau eskuratu izanagatik. "Europak Kirol Herri izendatzeak nazioarte mailako erreputazioari bultzada baliotsua ematea suposatzen du, Elgoibar mundu mailako kirol-sektoreko foko sozial, politiko eta instituzionalean kokatuz". Udal arduradunek herriko kirol elkarteekin eta Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako Eskola Kiroleko koordinatzaileekin bilera bat egin zuten hautagaizaren harira, azaroaren 7an (goiko argazkian). Ane Beitia urtetan egindako lana aitortu zien. "Berriek gabe, izendapen hau ez litzateke posible izango", adierazi du alkateak.

## Goi mailako patinatzaileek eskainiko duten saioarekin inauguratuko dute bihar skatepark berria

Basarten eraiki duten skatepark berria erabiltzeko moduan dago. Elgoibarko Udalak jai bat antolatu du azpiegitura berria inauguratzeko eta patinatzaile profesionalak etorriko dira, bihar (azaroak 17), Skate Jaia eskaintzera. 16:00etan hasiko den ikuskizunean lan



Campbell, Danny Leòn eta Queen of Bandals taldeko Mariak, Iraiak eta Ainarak hartuko dute parte. Danny Leon Madrilgo patinatzaile profesionala da eta Munduko Txapelketako probetan parte hartzen du. Ian Campbell bilbotarra Euskal Herriko patinatzaile onenetarikoak da. Sopolako ZUT Skateparks enpresak diseinatu du Skatepark-a eta 48.200 euroko kostua izan du.



## Karakateko igoera jokatuko dute bihar

Karakateko Igoera jokatuko dute bihar. 11:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Karakatera arteko bidea egin beharko dute, norberak aukeratzen duen bidetik. Interesatuek aurrez eman dezakete izena [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera idatzita, edo bihar bertan, 10:00etatik aurrera Kalegoen plazan. Iaz 70 lagunek hartu zuten parte eta probako errekorra ondu zuen Iban Muruak (26:17) jarraian lortzen zuen bigarren garai-penean. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez gailendu zen (34:21).

## Aiastiako bolatokian erabakiko da Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketa

Euskal Herriko 29. Hiru Txirlo Txapelketako azken jaurtialdia jokatuko dute zapatuan Aiastiako bolatokian, 17:00etan hasita. Hiru jardunaldi jokatuko ostean, sailkapen orokorrean Angel Ibarluzea elgoibartarra dago aurreneko postuan, 19 txirlorekin eta Lander Odiaga markinarra dago bigarren postuan, 18 txirlorekin. Bikoteka eta taldeka ere Elgoibarko bolariak daude sailkapen orokorreko buruan: Anjel Ibarluzea eta Xabier Loiola dira lehenengoak bikoteka, eta taldeka, San Migel A.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna.

☎ 648 063 061

Edozein lan egiteko prest nago.

☎ 643 464 072

Lan bila nabil. Geriatriako titulua eta tailer laguntzailearena ditut. Garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzia handia.

☎ 616 441 825

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest.

☎ 631 891 709

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 653 667 975

Baso garbitzen edo lorategiak zaintzen egingo nuke lan.

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai.

☎ 632 796 081

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai.

☎ 631 822 545

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 631 981 624

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 632 013 896

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.

☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Interna edo orduka.

☎ 680 103 356

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 269 991

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.

☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 295 212

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia.

☎ 631 115 608

Lanerako prest. Pertsona nagusia eta umeak zainduko nituzke, eta, garbiketa lanak egin ere bai.

☎ 602 152 685

Esperientzia daukat garbiketa lanetan eta adinekoak zein umeak zaintzen.

☎ 631 063 561

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Geriatria eta erreabilitazioko titulua ditut.

☎ 632 737 903

Lanerako prest nago.

☎ 632 729 663

Lanerako prest nago.

☎ 642 433 893

Asteburuetan lan egiteko prest nago.

☎ 617 914 989

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 115 608

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Euskalduna naiz eta titulua daukat.

☎ 626 490 986

Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko prest.

☎ 652 718 719

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest nengo.

☎ 643 158 669

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 612 293 334

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 616 421 970

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten arituko nintzateke. Orduka.

☎ 631 212 497

Lan egiteko prest. Okin lanetan esperientzia handia.

☎ 631 477 997

**Eskaintzak**  
Mekanika/elektromekanikarako langilea behar dugu, berehala hasteko. Bost urte baino gehiagoko esperientzia beharrezkoa. [Esarriauto@gmail.com](mailto:Esarriauto@gmail.com)

☎ 943 741 480

Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko.

☎ 605 775 336

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru lagelatakoa.

☎ 630 410 294

Pisu bila nabil. Nomina eta kontratua ditut.

☎ 632 839 617

Estudioa alokatzen dut, behar den gutxiarekin.

☎ 669 665 252

Etxea merkea erosiko nuke Elgoibarko erdigunean.

☎ 646 390 826

**ESKOLA PARTIKULARRAK.....**

Klase partikularak ematen dira. LH eta DBH. [biribiltxoko@gmail.com](mailto:biribiltxoko@gmail.com)

☎ 630 055 077

**KINTO OSPAKIZUNAK.....**

1940an jaiotakoen kinto bazkaria, azaroaren 24an. Maailan elkartuko dira 12:30ean. 13:00etan talde argazkia. Bazkaria, Sigma jatetxean, 14:30ean. Interesdunek 55 € sartu behar dituzte, ES35 3035 0007 2100 7113 5979 kontu korrante zenbakian, azaroak 21erako.

**BESTELAKOAK.....**


Belarritakoa galdu dut San Inazio kaletik eta Maltzagarako bide gorrian. Urre zurikoa da, txikia eta biribila. Balore sentimental handikoa. Saritu egingo dugu.

☎ 659 669 260


Giltz batzuk aurkitu nituen azaroaren 4an Uparitzaga kalean. DIA supermerkatuko txartel txikia dauka. Udaltzaingoan utzi ditut.

Ume bizikleta urdin bat aurkitu dut Urazandin, belarretan botata.

☎ 943 741 042



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Erakundearen Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA Mª PINTADO**


*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Saneamendu-sarea hainbat aldiz trabatu zaigu azkeneko urtean gure komunitatean. Itxuraz, alterazio batzuk izan dira kutxatila komunitarioetan, eta kutxatila batzuk estali ere egin dira. Horrek zaildu egin du kutxatila horien mantentze lanak behar bezala egitea. Jakin nahiko nuke zeini dagokion itxitako kutxatila horiek zabalteko lanak ordaintzea, haiek agerian egotea ezinbestekoa delako baldintza sanitario eta aseptikoak eta irisgarritasunari dagokion beste baldintzak bermatzeko.**

Kutxatila horiek bistan egon behar dira, beren funtzioa ondo betetzen dutela zaintzeko. Estaltzen badira, lurra behar den beste alditan jaso behar da eta gastu hori Komunitateak hartu behar du bere gain, beti ere, komunitatea sortu zenean kutxatila horiek hala zeudela egiaztatuz gero. Hau da, sortzetik gaizki egon direla egiaztatuz gero. Kutxatila horiek gerora itxi badira, baina, itxi dituen bizilagun horren ardura litzateke haiek zabalteza eta sortutako gastuak ordaintzea.

**ONDORIOA: Etxean edo bere jabetzako beste ondasunen batean kutxatila horietako bat duen jabea behartuta egongo da horien ardura daramanari etxean sartzen uztera, komunitateak kutxatilak erregistartzeko beharra ikusten duen aldiro. Mantentze lan bat egin behar den bakoitzean lurra jaso behar bada, kutxatilak itxi dituen jabeak berak egin behar du gastuei aurre. Izan ere, bere ardura da kutxatila horiek itxen ez direla bermatzea eta itxekotan erraz zabalteko moduko estalki batekin itxi direla bermatzea.**





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ibon**, asteazkenean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Danel**, bihar 3 urtetxo beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Lea**, etxeko sagutxo, hilaren 19an 6 urte egingo dituzulako. Muxu erraldoi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Unax!** 7 urte! Patxo handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Beñat**, azaroaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Familia-koen eta bereziki, Itsaso, Oihane eta Saioaren partez.



Urtetan aurrera, beti bezain argi. Etxeko denon partetik, zorionak eta patxo handi bat tiari.




**Peru eta Elene**, 5 eta 10, ai enel Zorionak, eta patxo handi bana etxeko denon partetik, eta Elurrekin ibili ernal!

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€





**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)  
**943 744 457**

## QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedeen bete hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egina

## IkasGO akademia



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

## Uzuri

ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerdik ostiralarer: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoizpeindegiz zerbitzua daukagu.  
Dena ordue hartzeko.

AZAROAK 23

# BLACK FRIDAY

%30 EKO DESKONTUA

EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

## 16 BARIKAKUA

**17:30-20:00** Odol ateratzeak, Mendaroko Ikastolan.

**18:00-20:00** Euskaraldia Taldekoek mahaia jarriko dute jubilatuen ondoko lokalean, izenak hartu eta txapak banatzeko.

**19:00** Erakusketa: Morkaiko mendizale elkartearen 75. urteurrenari eskainitako erakusketa. Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 25era arte.

**20:30** Aurrez grabatutako opera emeraldia: *Jonas Kaufmann bajo las estrellas*. Herriko Antzokian.

**21:30** Bideo foruma: *7 diosas*. Hai-zeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**23:00** Kontzertua: Jon Gurrutxaga. Si-nuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 17 ZAPATUA

**11:00** Karakateko Igoera. Morkaikok antolatuta, Kalegoen plazatik irtengo dira partaideak.

**11:30** Magosto jaia. Galiza etxeak antolatuta, gaztainak eta ardoa banatuko dituzte. Maalako parkean.

**16:00** Skate jaia. Udalak antolatuta, Basarten.

## 18 DOMEKA

**11:00-15:00** Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

## 19 ASTELEHENA

**10:30 eta 17:30** Mercadonari buruzko hitzaldia. IMHn. Azaroaren 30era bitartean egunero eskainiko dituzte bi hitzaldi. Parte hartzeko 690 034 100 telefonora deitu behar da.

**11:00** Pentsiodunen batzarra: Nondik gatoz, non gaude, nora goaz... Hainbat gai landuko dituzte. Herriko Antzokian.

**12:00** Pentsiodunen elkarretaratzea: 1080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzeko. Maalako parkean.

**18:00** Jabekuntza tailerra: *Min ematen badu, ez da maitasuna*. Loredi Salegik eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 20 MARTITZENA

**18:30** Hitzaldia: Maskulinitate berriak. Xabier Odriozolak eskainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** Musikalean jaialdia Mendaroko frontoian. Antolatzailea: Ameikutz Musika Eskola. Ekitaldian dantza taldekoek ere parte hartuko dute.

## 21 EGUAZTENA

**17:00** Jostailuen erakusketa. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan hilaren 24ra arte.

**17:00** Ipuin kontalaria: *Berdintasuna maite dugulako*. Ines Bengoak eskainiko du saioa, Gotzon Garate Udal Liburutegian, HH5eko umeentzako.

**18:00** Ikasturte berrirako IMHn Ingeniaritza Gradu Dualari buruzko informazio saioa. IMHn.

## 22 EGUENA

**8:30** Ikastolako ikasleen kalejira, Kalegoen Plazatik Ikastolara.

**19:00** Hitzaldia: Organizazio dinamiko edo berritzaileetan guztia mugitzen du. Isiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**21:00** Mendi tour emanaldiak. Bilboko Mendi Film Festibaleko bost pelikula eskainiko dituzte Herriko Antzokian. Sarrera, 4 euro. Antolatzailea: Morkaiko Mendizale elkarteak.

## 23 BARIKAKUA


**19:45** Trikitixa, akordeoi eta pandero kalejira, herriko kaleetan zehar.

### Zinea (Herriko Antzokian)



### 'La sombra de la ley'

17 zapatua, 19:00 / 22:15  
18 domeka, 19:00  
19 astelehena, 21:30



### 'El reino de los elfos'

18 domeka, 16:30



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
16 BARIXAKUA	17 ZAPATUA	18 DOMEKA	19 ASTELEHENA	20 MARTITZENA	21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean Oruesagasti	Iluntzean Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410



NAZIOARTEKO  
BIKINTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# INGENIARITZA GRADU DUALA



**Informazio saioa: Azaroak 21 · 18:00etan**

Baieztatzeak: 943748264 ingeniaritza.ehu@imh.eus www.imh.eus



## 1963

Elgoibartar batek ekarri du aste honetako erretratu BARREnera. 1963. urteko Txiki Egunean aterata dago argazkia. Argazkiko neska kuadrilla honek bazeukan San Bartolome jaietan elkarrekin kalera irteteko ohitura, eta baita, jakina, Txiki Egunean elkarrekin bazkaltzekoa ere. **Zutik:** Maria Jesus Urain, Mari Tere Laskurain, Begoña Sorazu, soraluzearra, Kontxita Jauregi eta Mari Tere Unzueta. **Behean:** Mari Carmen Zubizarreta eta Marisol Odria.



## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- e-postaz bidali: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)
- Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**





Innovation  
that excites



APROBETXATU  
WLTP ARAUDI BERRIA ETA  
LORTU **NISSAN X-TRAIL BAT**  
**LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!**  
**GAURSAN BAKARRIK.**

## GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

**23**  
azaroak

# OSTIRAL BELTZA

**Deskontuak  
eta  
Promozioak**

## **ASTEAN ZEHAR:**

---

**AZAROAK 19**

18:00 - 19:30 • Bamboleo kaleko antzerkia.

**AZAROAK 21**

18:00 - 19:30 • Argidun aterkien emanaldia.

**AZAROAK 23**

18:00 - 20:00 • Kalejira txarangarekin, trikitilariak eta Txankakuako maskotak.

---